

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



## 180 TONA HONDAKIN JASOTA ASTE NAGUSIAN

180 tona hondakin jaso dituzte joan den Aste Nagusian bide-kale publikoetatik Donostiako garbiketa zerbitzuek. Iaz, 185,5 tona hondakin bildu zituzten.

Bide Publikoetako zinegotzi Miguel Ángel Díez sozialistak adierazi duenez, “oro har, aurreko ekitaldian baino hondakin gutxiago egon da, hondartzetan ere, askoz gutxiago egon da”.

128.720 kilo hondakin kendu dituzte bide publikotik, ia iaz bezala, 129.060 kilo kendu zituzten-eta. Aurtengo guztizkotik, 4.480 kilo suez sortutako hondakinak izan dira.

Donostiako hondartzetan, 34 tona hondakin bildu dituzte, iazko Aste Nagusian baino gutxiago, 48.520 kilo hondakin eraman baitzituzten orduan. Kontxatik eta Ondarretatik, zehazki, 9.090 jaso zituzten (12.580, iaz), eta, Zurriolako hondartzatik, 25.180 kilo hondakin eraman zituzten; iaz, berriz, 34.270 kilo.

Piraten jaiak hondakin plastiko gehiago sortu du aurten aurreko urteetan baino. 7.720 kilo zur kendu dituzte (2018an, 7.340 kilo); 640 kilo plastiko, iazko 440 kiloen aldean, ia % 60 gehiago, eta beste 200 kilo bestelako zabor (220, iaz).

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



laz bezala, bi edukiontzi handi jarri zituzten Pasealeku Berrian, Argazki Elkartearen parean, hondakinak haietara botatzeko, batez ere Parte Zaharreko ostalaritzakoak. Bi edukiontzietan, batez beste, 25 poltsa jaso zituzten egunero, kalez kale bildutakoaz gain.

Garbiketa indartu egin da jaiak direla-eta jende asko ibiltzen den inguruetan, hala nola, Boulevarden, Kontxa pasealekuan, Parte Zaharrean eta Pasealeku Berrian. Gune horietako paperontzietan, gainera, langile bat arduratu da paperontziak egunero garbitzeaz.

Gernu uxatzailea da jaietako garbiketa zerbitzuko beste “klasiko” bat, horman babes geruza bat osatzen baitu, txiza paretetara sartzea eragozteko. Kaian, Portaletan edo Sokamuturra kalekkan isuri zuten likido hori, eta, egunero, Donostiako hainbat lekutan erabili dute usaindun produktu bat, kalean pixa egitea ohiko jokabidea izaten baita haietan.

Saltoki batzuek bide publikoan kartoiak uztea izan da puntu beltz bat, Aste Nagusian biltzeko zerbitzurik ez dagoela jakin arren. Horregatik, zerbitzu berezi bat ezarri behar izan zuten igandean, abuztuaren 18an, kartoa jasotzeko.